



LUR eta AMETS

HAU BAI ABENTURA!

USTIAPEN PEDAGOGIKOA

Zineskola 2021

Nicolas Caussé - Maialen Idoate- Ixabel Carricart
(Hezkunde nazionaleko formatzaileak)
Etxahun Aurkenerena (Camus kolegioko historia irakaslea)

LUR *eta*

AMETS
FILMA

IRAKASLEAREN HELBURUAK

- Filmaren ulermena lantzea oztopo linguistikoak aitzinetik ikusiz
- Filmaren bitartez Euskal historiaren gertakari eta protagonista batzuk ezagutaraztea eta ulertaraztea
- Ikasleen izpiritu kritikoa lantzea

IKASLEEN HELBURUAK

- Zinemara joanez esperientzia kulturala **BIZI IZATEA**
- Zineman ikusi(ko) duten filma **ULERTZEA**
- Euskal Herriko historiaren gertakari eta protagonista desberdinak **EZAGUTZEA** eta **ULERTZEA**

- **Filma ikusi aitzin...**

PROIEKTUAREN AZALPENA

« Laster zinemara joanen gira, Lur eta Amets filma euskaraz ikustera.

Istorioa ongi ulertzeko, filma ikustera joan aitzin, klasean, Euskal Herriaren historiako garai ezagunak izendatuko ditugu eta erranen didazue zer dakizuen horri buruz. Filma ikusi eta gero, garai batzuen lanketa sakonduko dugu»

- **Filma ikusi aitzin...**

1. Saioa : Filmaren sinopsiaren ulermena	2. Saioa : Protagonista nagusien ezagutzea, identifikatzea	3. Saioa : Gertakari nagusien aipatzea
4. Saioa : Euskal Herriaren historiako protagonista famatu batzuen aipatzea		

1. saioa: Sinopsiaren - ulermena

Cf: Sinopsia (testua/bideoa):

- Talde handian lehenik filmaren sinopsiaren testua irakurtzea

Irakasleak sinopsiaren testua arbelean ezartzen du edo proiektatzen du:

- Ikasleek testua irakurtzen dute.
- Irakasleak ulermena errexten du.

➤ **Filmaren sinopsiaren** (laburpena) irakurketa.

Lur eta Ametsen gurasoek asteburu honetan ezkontza dute eta bikiak amona Andereren etxean utzi dituzte asteburu pasa. Baina Andereren eta bere katu Baltaxarren botereei esker, ez da asteburu arrunta izango. Bidaia batean murgilduko dira, garai eta sasoi desberdinetan abentura gazi-gozaok bizituz, gure historian zehar bidaiatuko dute. Beti izango dira beraiek protagonistak, Andere eta Baltaxarren laguntza ordaingabearekin. Baina, tamalez, gaiztoak, sasoi eta garai desberdinetan, ia beti izango dituzte atzetik.

- **Eneko Olasagasti gidoilariak egindako filmaren sinopsiaren bideoa (1. partea).**
<http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8044>



« Bi gaztetxo: Lur eta Amets, Amona, Katu bat
pertsonaia magiko bat hizketan ere badakiena »

- **Eneko Olasagasti gidoilariak egindako filmaren sinopsiaren bideoa (2. partea).**

<http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8045>



« Asteburu batean, amonaren etxean pasatzen dute asteburu magiko bat eta asteburu horretan gertatzen da bidaia hau.

Historiako garai desberdinetan zehar bi pertsona horiek bizitzen dituzte abenturak eta horrela kontatzen ditugu Euskal Herriko garai desberdinetako istorioak, giroak, gertatutakoak. »

2. saioa: Pertsonaia nagusiak

Cf: Pertsonaiak (irudiak/testuak 14. --> 21. orr.):

➤ Pertsonaia bakoitzaren deskribapenaren irakurketa.

Irakasleak testuak proiektatzen ditu.

- Ikasleek taldeka lan egingen dute. 2naka, 3naka testu **bat irakurriko dute** eta elkarrekin irakurri dutenaren **laburpena** eta **marraskia** egingen dituzte.

Marraskia: **nola** da pertsonaia?

Laburpena: **nolakoa** da pertsonaia (Izaeraren ezaugarriak)?

Lur

Begi berdeak eta ile gorria dituen neska hau Lur da.

Geldi egoten ez dakien horietakoa: inguruak miatzea gustatzen zaio eta korrika egitea; abenturazale amorratua da.

Oso ausarta da, ezerk ez dio atzera eragiten. Jenio bizia du eta, haserretzen denean, Baltaxar katuak ere ihes egiten dio.

Neba bikia du: Amets.

Amets

Mutiko beltzaran hau Amets da.

Arreba bikia du: Lur.

Bikote ezin hobea osatzen dute.

Amets ameslaria da, irudimen handikoa, sortzaile fina eta mutiko sentibera.

Asko gustatzen zaio bakarrik egotea, hala ere, inoiz ez da aspertzen.

Amona Anderrek dio beste inork ikusten ez dituen gauzak ikusten dituela.

Baltaxar

Baltaxar katu berezia da, berehala jabetu zen horretaz amona Andere; zer esanik ez, hitz egiten entzun zionean.

Hori bai, amonak bakarrik ulertzen dio.

Etxe-katu bihurtu zenetik, beti egon da amonarekin. Betidanik zaindu dute elkar.

Baltaxar katu mesfidatia eta xaxatua da, jeloskorra ere bai.

Andere

Amets eta Lurrek ez dakite amona izaki berezia dela, eta hortik datorkiola jakintza, beste garai eta mundu batzuk ezagutu dituelako.

Izaki mitologikoa da, magikoa.

Amonaren dohain bereziei esker, Ametsek eta Lurrek denboran zehar bidaiatzeko aukera izango dute.

Magia egiteko, lagun duen Baltaxar katuaz baliatuko da amona.



Lur

Begi berdeak eta ile gorria dituen neska hau Lur da. Geldi egoten ez dakien horietakoa: inguruak miatzea gustatzen zaio eta korrika egitea; abenturazale amorratua da. Oso ausarta da, ezerk ez dio atzera eragiten. Jenio bizia du eta, haserretzen denean, Baltaxar katuak ere ihes egiten dio. Neba bikia du: Amets.

Amets

Mutiko beltzaran hau Amets da. Arreba bikia du: Lur. Bikote ezin hobea osatzen dute. Amets ameslaria da, irudimen handikoa, sortzaile fina eta mutiko sentibera. Asko gustatzen zaio bakarrik egotea, hala ere, inoiz ez da aspertzen. Amona Anderek dio beste inork ikusten ez dituen gauzak ikusten dituela.



Andere

Amets eta Lurrek ez dakite amona izaki berezia dela, eta hortik datorkiola jakintza, beste garai eta mundu batzuk ezagutu dituelako. Izaki mitologikoa da, magikoa.

Amonaren dohain bereziei esker, Ametsek eta Lurrek denboran zehar bidaiatzeko aukera izango dute. Magia egiteko, lagun duen Baltaxar katuaz baliatuko da amona.



Baltaxar

Baltaxar katu berezia da, berehala jabetu zen horretaz amona Andere; zer esanik ez, hitz egiten entzun zionean. Hori bai, amonak bakarrik ulertzen dio. Etxe-katu bihurtu zenetik, beti egon da amonarekin. Betidanik zaindu dute elkar. Baltaxar katu mesfidatia eta xaxatua da, jeloskorra ere bai.



Afixa



- **Filma ikusi aitzin...**

1. Saioa: Filmaren sinopsiaren ulermena	2. Saioa: Protagonista nagusien ezagutzea, identifikatzea	3. Saioa: Gertakari nagusien aipatzea
4. Saioa : Euskal Herriaren historiako protagonista famatu batzuen aipatzea		

3 eta 4. saioak:

Euskal Herriko garai desberdinak

10 KAPITULU badira.

1. Memoriaren ehiza

2. Erromatarren garaia

3. **Orreagako gudua: Karlomagno eta frankoen kontrako bataila**

4. **Urrunago joateko: Erromatarren eragina, Bazkoiniatik Nafarroarat Eneko Aritza eta Iruneko Erresuma**

5. **Sorgin ehiza**

6. Karlistak eta liberalak

7. Industrializazioa: Bilboko tabakarerak

8. **Espainiako 1936ko gerla: Gernikako bonbardaketa**

9. **Euskararen egoera**

10. Hertzainak: Laurogoikadak eta euskal « rock »a

Euskal Herriko garai desberdinak

Cf: Gertakarien taula

KAPITULUKA ANTOLATUAK :

1. Memoriaren ehiza
2. Erromatarren garaia
3. **Orreagako gudua: Karlomagno eta frankoen kontrako bataila**
4. **Urrunago joateko : Erromatarren eragina, Bazkoiniatik Nafarroarat Eneko Aritza eta Iruneko Erresuma**
5. **Sorgin ehiza**
6. Karlistak eta liberalak
7. Industrializazioa: Bilboko tabakarerak
8. **Espainiako 1936ko gerla: Gernikako bonbardaketa**
9. **Euskararen egoera**
10. Hertzainak: Laurogoikadak eta euskal « rock »a

- **Filma ikusi eta gero...**
 - **1. Parte: Ikasleen iritziak biltzea ahozkoan eta afixa batean idaztea.**

Maitatu duzu? Zergatik?

Maitatu dut lako. /baita.

Ez dut maitatulako/....baita.

- **Filma ikusi eta gero...**

- **2. Parte:**

Kapitulu bakoitzarentzat ulermenaren lantzeko :

**DESMARTXA PEDAGOGIKO BATEN SEGITZEKO
PROPOSAMENA**

KAPITULU BAKOITZEAN

Desmartxaren helburuak:

- Zer ulertu behar dugu? (NOR/K? NON? NOIZ? ZER?)
- Zer laguntza dugu euskara/z ulertzeko eta adierazteko?
(Tresna linguistikoak: hiztegi eta egitura bereziak)
- Gure iritzia nola eraikitzen ahal dugu?
(Garaiko eta gaur eguneko bizimodu/bizipenak konparatuz, gogoetatuz)

Zer ulertu behar dugu?

NOR dira protagonistak?

- Eneko Aritza eta bere aita
- Karlomano
- Erroldan, Karlos Handiaren iloba

NON gertatzen da?

- Orreagan

... KAPITULUAN

Oinarrizko baliabideetatik abiatuz :

Bideo/Testu/Argazki/Irudi/
Lekukotasun/Eskema...

ZER gertatzen da?

Karlomanok Iruña erre zuen.
Baskoiek Karlos Handiaren armadari eraso zioten.
Euskaldunek **mendekua** hartu zuten.

NOIZ gertatzen da?

778ko abuztuaren 15ean

Hizkuntza ulertzeko
eta adierazteko
laguntzak?

Euskarri / garai bakoitzaren
hiztegi eta egitura berri eta
bereziak ezagutarazi eta
erabilarazi

NON pasatzen da?

Non kasua

-n da/dira.

-

-

NOR dira protagonistak?

Nor/Nork/Norekin kasuak

- da / dira.

-k du / dute.

-ekin du/dute

-ekin da/ dira.

... KAPITULUAN

Oinarrizko baliabideak:

Bideo/testu/argazki/irudi/
lekukotasun/eskema...

ZER gertatzen da?

- da / dira.

-du / dute.

-


NOIZ pasatzen da?

Noiz/ Nondik / Nora
kasuak

-n da/ dira.

-n du/dute.

-



KAPITULU BAKOITZEAN

Desmartxaren **urratsak** :

- **1. urratsa:** Hiztegi eta egitura berriak ikasleei ezagutaraztea eta erabilaraztea
- **2. urratsa:** Ulermenaren lantzeko ikasleek 4 galdera nagusiei erantzutea (Nor? Noiz? Non? Zer?)
- **3. urratsa:** idatzizko aztarna eraikitzea
- **4. urratsa:** Eztabaida sortzea ahozkoan : iritziak adieraztea, ideiak trukatzera, argumentatzea...

1. urratsa (Kolektiboan edo talde tipian)

- **Irakaslearen bete-beharrak:**

- Ulermenari oztopoak sortzen ahal dituzten hitz eta egiturak **identifikatzea**

- Hitz eta egitura horiek **ezagutzera ematea** :

- Afixa batean erran-nahia, itzulpena edo/ta irudi-argazkiak proposatuz

- **Ikasleen bete-beharrak :**

- Hitz eta egiturak ulertzea eta **erabiltzea** :

- Asmakizun eta jokoen bitartez (altxor jokoa/nor da nor?/ Kim jokoa....)

2. urratsa (talde tipian)

- **Irakaslearen bete-beharra:**

- **Ulertzeko estrategiak ikasleekin esplizitatzea:**

Testu/bideo/irudi/hitzaldi... baten ulertzeko zer jakin behar dugu?

- **Ikasleen bete-beharrak:**

- **4 galdera nagusiei erantzuten jakitea**

- Non gertatzen da?
- Noiz gertatzen da?
- Zer gertatzen da?
- Nor dira protagonistak? (Nork)

- **Lan modalitateak:**

Taldeka ikasleek galdera bati erantzun beharko dute idatzian (cf : 30. diapoia)

Galdera aitzinetik ezagutzen dute. Lan euskarria **intentzio zehatz** batekin irakurri/entzun eta aztertuko dute.

Zer ulertu
behar dugu?

A taldearen galdera:

NOR dira protagonistak?

-
-
-

B taldearen galdera:

NON gertatzen da?

-
-
-

... KAPITULUAN

Oinarrizko baliabideetatik
abiatuz:

Bideo/testu/argazki/irudi/
lekukotasun/eskema...

C taldearen galdera:

ZER gertatzen da?

-
-
-
-

D taldearen galdera:

NOIZ gertatzen da?

-
-
-

3. urratsa (Kolektiboan)

- **Irakaslearen bete-beharra:**

- Talde bakoitzari hitza ematea eta erantzunak ezagutzera ematea
- Erantzunak egiaztatzea oinarrizko euskarrira itzuliz eta konparatuz

- **Ikasleen bete-beharrak:**

- Taldeka ikasleek erantzunak azaltzen dituzte argumentatuz
- Besteen erantzunekin adostasuna/desadostasuna adierazten dute

- **Lan modalitateak:**

Ikasleek talde handian lan egiten dute, ahozkoan.

Irakasleak behin erantzunak egiaztatu eta, afixa handi bat osatzen du arbelean (cf gaineko eskema 24. diapoa)

4. Urratsa (Kolektiboan edo talde tipian)

- **Irakaslearen bete-beharra:**
 - Ikasle bakoitzari bere iritzia eskatu
 - Iritzia adierazteko hiztegi eta egitura bereziak landu (*pentsatzen dut dela/direla/duela/dutela... zeren bait... /lako. / Ados naiz/ Ez naiz ados Ikerrekin,lako. /zerenbait.....*)
- **Ikasleen bete-beharrak:**
 - Bakoitzak bere iritzia adierazten du hiztegi eta egitura egokiak erabiliz.
- **Lan modalitateak :**

Ikasleek talde handian lan egiten dute edo talde tipian, ahozkoan.

Irakasleak afixa handia ikasleen iritziekin osatzen du arbelean (cf gaineko eskema 26. diapoa)

➤ **Ulermena sakondu: Orreagako gudua**

Ikus [L&A - Orreagako gudua](#) dokumentua

Gertakariaren ulertarazeko dokumentuak:

- Orreagako gudua filmean (bideoa)
- Garai hartako pertsonaia historikoak (filmetik hartutako argazkiak/testua)
- Etxahun Aurkenerena historia irakaslearen azalpena (audioa)
- Idatzizko aztarna (testua)
- Orreagako kantua (bideoa)
- Gartxot filmarekin lotura (bideoa)

➤ **Urrunago joateko : Testuinguruan kokatzeko**

- Baskoniatik Nafarroarat : Iruneko Erresuma (EITBko bideoa)

➤ Ulermena sakondu: Sorgin Ehiza

Ikus [L&A - Sorgin ehiza](#) dokumentua

Gertakariaren ulertarazeko dokumentuak:

- Sorgin ehiza ustiapen orokorra
- Sorgin ehiza filmean (bideoa)
- Intza eta Tomas « Sorginaren sekretua » liburutik hartutako pasarte batzuk (testua)
- Sorgin ehizaren hastapena (EITBko bideoa)
- Sorgin ehizaren hastapena (Erantzun fitxa)
- Sorgin ehizaren hastapena (Erantzun fitxa sinplifikatua)
- Sorgin ehiza Zugarramurdin (EITBko bideoa)
- Sorgin ehiza Zugarramurdin (Erantzun fiza)
- Sorgin ehiza Zugarramurdin (Erantzun fiza sinplifikatua)

➤ **Ulermena sakondu: Gernikako bonbardaketa**

Ikus [L&A - Gernikako bonbardaketa](#) dokumentua

Gertakariaren ulertarazeko dokumentuak:

- Gernikako bonbardaketa filmean (bideoa)
 - Gernikako bonbardaketa (EITBko bideoa)
 - Idatzizko aztarna (testua)
 - Picassoren Gernika margolan famatua
-
- **Urrunago joateko:**
 - 1936KO GERLA EUSKAL HERRIAN (EITBko bideo osoa)

➤ Ulermena sakondu: Euskararen egoera

Ikus [L&A - Euskararen egoera](#) dokumentua

Egoeraren ulertarazeko dokumentuak:

- Euskararen egoera lantzeko proposamena
- Saratik Donostiara (Filmaren irudiak eta elkarrizketak)
- Euskararen egoera 1. testua
- Euskararen egoera 2. testua
- Ikastola berri bat Donostian (Filmaren irudiak)

Lur eta Ametsekin segitzeko



Ezagutza liburuak



Ipuin liburuak,



Galdera-erantzunen mahai-jokoa